

# KANALAK

SilenceHD, internet bidez erosi ahal izango da gure web orrialdetik, beste enpresa batzuen web orrialdeetatik eta baita haien denda fisikoetan, guk oraindik ez baitugu denda fisiko propiorik. Gure produktua web propioa izango duenez bertan, aterako ditugun lehorgailu mota desberdinen berri emango dugu eta haien informazioa egongo da. Webgunearekin, erosleengana gehiago gerturatzeko eta haien balorazioak irakurtzen saiatuko gara, eta hobetzeko balioko digu. Mota guztietako berrikuspenak onartuko ditugu, beti errespetuz izaten badira.

Gure produktua fisikoki erosteko, hainbat denda garrantzitsuetan aurkitzeko aukera egongo da, adibidez, Media Markt, Fnac, Carrefour, Alcampo, etab, baina aldi berean, ileapaindegi txikietan. Modu honetan, gure lehorgailuak, Espainiako ia ileapaindegi guztietan egongo dira eta ere aipatutako enpresen denda handietan zehar. Gainera, denda hauek hirien erdialdean egoten dira normalean, faktore hori, gure enpresarako onuragarria izan daiteke, gure produktua jende askoren eskura egon ditzakeelako. Hasieran, Espainian zehar bakarrik salduko da eta arrakasta handia izaten badu, denborarekin mugak zabaltzen joango ditugu.

Hau guztiari esker, gure produktua bitarteko kanalen eta kanal zuzenen bidez saltzeko aukera izango dugu: interneten bidez eta denda fisikoko bidez.

Lehen aipatu ditudan enpresak, beraien denda fisikoetan salduko da. Denda txikietan salmentan jarriko ditugu, nahi duen pertsonak nahi dituen lehorgailu kopurua erosi ahal izateko. Denda handietan, lehorgailu kopuru handia bidaliko dizkiogu eta haiek propaganda egingo digute eta salduko dizkigute. Guk interneten bidez bakarrik salduko ditugu eta informazioa ere eskainiko dugu.

Hau gutxi baliz bezala, baita, gure produktuaren informazio guztia eta berriak lehenbaitlehen ezagutzeko hainbat sare sozial sortuko ditugu Facebook, Instagram edo Twitter. Gainera, bertan beherapen asko, deskontu kodeak, produktu berriak, zozketak, etab. egongo dira gure jarraitzaileentzat. Gaur egun, sare sozialak gure eguneroko bizitzan bertan daudenez, oso modu ona iruditu zaigu gure produktua gazteen artean zabaltzeko eta honen propaganda on bat egiteko, dirurik ordaindu gabe.